

«Sillita al sol»

Joxean AGIRRE

Zorionari buruzko definizio bitxien artean Octavio Pazen bat aipatu ohi da. «La felicidad es una sillita al sol», esan omen zuen, edo idatzi. Definizioak murriztai-lea dirudi, neguko eguzkiaz arituko zelako edo emakumeei buruz, gizonezkook eguzkitik ihesi ibiltzeko joera baitugu. Iazko beroaldi larri hura, esaterako, Gironako hondartza bipiletan harrapatu nuen, eta goiz erdiko bainuaren ondoren gizonezko gehienak mendi maldan gora sumatzen nituen pinuen itzal bila, emakumeak beren haragi mardul edo urriak lirdingatu eta, ausardia ikaragarriarekin, eguzkiari begira gelditzen ziren bitartean. Han pinupean egiten nituen gogoeta sakonen

ondorioz deskubritu nuen emakumeak prestatuago daudela klima aldaketari aurre egiteko gizonezkook baino.

Nik neuk urteetan definizio prosaikoago bat erabili izan nuen, zoriona krianzarekin bazkaldu eta siesta egiteko astia izatea zela esaten bainuen. Urteak dira ohitura praktikatzeko dudala eta zorion sentsazioa tamalez debaluatu egin da.

Behin Wittgensteinen testu batean irakurri nuen ez dagoela sendatzen ari denarena baino zorion handiagorik, eta hori ere ezagutu berri dut. Covidak harrapatu ninduen oporretan. Bizkaiko aldaera izan behar zuen, Bermeon kutsatu bainintzen, eta auskalo zein ozeanotan, auskalo zein Alakranetan

ibilia zen birus kabroia nire biriketan sartu aurretik, lehen bi egunetan sukarak eragindako amets gaiztoetan gogorrako erasotzen ninduela sartu baitzitzaidan buruan, gipuzkoarra nintzelako. Hamar egun igaro ziren eta zin dagit ez dagoela testaren pantaila txikia zuria dagoela ikusteak ematen duen bozkarioaren parekorik.

Pozak iraun egiten dit eta hasi naiz berriro krianzarekin bazkaldu eta siesta egiten. Udazkena ere ate joka sumatzen dut, eta beharbada aulki txiki bat balkoira atera eta eguzki epelari begira tarte batzuk egiten ere has naiteke, susmatzen hasia bainaiz bizitzaren ederra zorion txikien batuketa baizik ez ote den. •

Komunera bisita

Asier AIESTARAN

Agian ideia originala ez da berea izango, baina nik David De Jorge sukaldariari entzun nion taberna edo jatetxe batean zer moduz jaten den antzemateko modu onena patata tortilla pintxo bat eskatzea izaten dela. Ona baldin bada, mimo pittin batekin eginga, seinale ona: seguruenik sukaldetik irtengo diren gainerako jakiak ere primerakoak izango dira. Aldiz, pintxo horrekin utzikeria puntu bat sumatuz gero, agian hobe buelta bat eman eta otordurako beste lekuren bat begiratu.

Erosi egin nion planteamendua, ez da batere hausnarketa aldrebesa, eta orain gutxi otu zitzaidan ea antzeko

erlazioen bat aurki litekeen establezimendu baten garbitasunaren eta bertan eskaintzen diren produktuen artean. Taberna eta jatetxeetara itzuliz, ea adibidez komuna garbi egoteak sukaldeko garbitasunarekin harreman zuzena izan dezakeen, edo komuna zikin egoteak mesfidati izatera bultzatu beharko gintuzkeen nahitaez.

Egia da, azken ekuazio horretan beste faktore batzuek ere garrantzia dutela; bezeroek, esaterako, irakurketa guttia desitxura dezakete –aski da zure aurretik sartu dena zikin demonio bat izatea dena aldatzeko–. Lokala zaharra edo berria den, txikia edo handia, jende asko edo gutxi dabilen... Gainera,

emaitza fidagarriak ateratzeko komun asko bisitatu beharko lirateke, eta ni etxetik kanpo komunera ez joaten saiatzen den horietakoa naiz, ez parean tokatzen diren komun guztiak zapaldu behar izaten dituztenetakoa.

Hori bai, bada gauza bat jasan ezin dudana: eginbeharrak egiten egon eta argi automatikoa itzaltzea. Komun barruan, ilunpean, besoak jasota mugimenduak egiten ibiltzeak sortzen duen inpotentzia baino sentsazio okerragoak gutxi egongo dira munduan. Azkenekoz opor hauetan gertatu zait, Irri-Sarri Landeko komunetan; eta ez, ez du bertako sukaldearekin erlazorik. Bazkariak azkar arindu zidan haserrea. •